

-AMONATXOA...ESKEAN.-

- I -

Erriko elizaren ate-ondoan
amonatxo bat dago egun osoan.
Buruan zapi beltza ta ille zuria,
begitan...itzalita bizitz-argia.
Esku dardaritsuaz beti eskean,
baña otoitza beti bere ezpañean;
otoitza ta iri-parra bere ezpañetan,
Jainko-maitetasuna, biotz-zañetan.

Berak esanda dakit bere bizia:
bizitza illuna, odei beltzez josia...
Saspi semedun ama errukaltsua.
berrogei urte eskean, ta ogei itsua.
Senarra gaiztoa ta seme moskorrak:
biotzean negarra, etxean zorra. .
Alaz ere otoitza, bere ezpañetan,
Jainko-maitetasuna. biotz-zañetan.

Geroztik ezin aztu amonatxoa,
geroztik ezin uka limosnatxoa;
geroztik dakit zembat gure Jainkoa
maite ditun eskale onen gogoak;
geroztik dakit nola beazun-pean,
eztia arkitu neiken nal dedanean...

- II -

Erritik urrun, ixil-ixilik
kamposantua...
Antxe aztuta txoko batean
amona itsua ..
Zurezko gurutz txiki bat baizik,
gajoak ez du:
ara negarrez oraindik iñor
ez zaio eldu
Bai..! Eguzkia mendi-tartetik
sartu-danean,
ikusi oi-da noizpait apaiz bat,
obi-gañean
auzpez jarrita, Zerurontz beira,
otoitz- luzean...

JAUREGI' TAR LUIS



-NEKAZARI GAXOA..!

Lurra goldetzen ari da
nekazari gaxoa,
ta izerdiz ta negar-malkoz
lurra bustitzen doa:
illun-illun arpegia,
illunago biotza.
barruan sartuta dauka
numbait ezten zorrotza.

Aida Gorri..! Aida Motxa..!
dio malko-tartean:
ta Goruntz begik jasota,
otoitz-dagi noizean;
geldi-geldik baserrira
beira dago bestetan...
Ai..! Bere naigabe-miña
zorrotza da benetan...

.....
.....

Bere soroan erne da
erein zuan artoa,
baño iñun ikusten ez det
nekazari gaxoa.
Baserria ixilik dago,
larrez josirik lurra,
ta katea apurtu-nairik
zaunga-zaunga zakurra

Bertako amonatxoak
esan dit gaur goizean:
"Seme zarrena il zioten
moroak gerratean...
Geroztik ez zuan onik
ez etxe t'ez lanean...
Bera ere, ai..! naigabez...
il zaigu azkenean."

JAUREGI' TAR LUIS